



DESFIBRILADORE AUTOMATIKO EZARGARRIA INPLANTATZEKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Ebaki txiki baten ondoren, gailu bat jarriko da larruazalaren azpian, lepauztaiaren azpian, elektrodo bati edo biri konektatuta, egokiespena edo indikazioa zein den. Batzuetan, gailuak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu behar da, pazienteak izan ditzakeen arritmien antzekoak eraginez eta desagerraraziz.

Nola prestatu behar naiz probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (Sintrom®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Gosarian ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko.
- Prozeduraren aurretik INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean oinarrizko intsulina administratzen baduzu (Levemir®, degludek, glargina...), ohiko dosia hartu PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan sartzean kendu beharko duzu.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.

Nola egingo didate prozedura?

Proba anestesia lokala erabiliz egiten da.

Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu ezkerreko besoan, adierazitako profilaxi antibiotikoa eta prozeduran zehar behar izan dezakezun beste edozein botika emateko, bai eta iododun kontrastea emateko ere, beharrezkoa bada, elektrodoak aurrera egiteko erabiliko den zain-zitxada axilarra/subklabia/zefalikoa gidatzeko.



Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta inplante-gunea soilik agerian utziko dizute. Bertan, anestesia lokala jarriko dizute ziztada egingo den eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldagarria da, 1-2 ordu ingurukoa, eta hasiera batean anestesia lokala baino ez da erabiltzen, larruazalpeko desfibriladorearen inplantean izan ezik, sedazioa eskatzen baitzuen. Pazienteak atsedean erlatiboa hartu behar du inplantearen ondorengo 2-4 orduetan.

Zer egin behar dut proba ostean?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 24 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Inplantearen 24 orduetan kontrol-erradiografia bat egingo dizute, konplikaziorik egon ez dadin.